

ZESTA-PUNTA. Hautagai nagusiek, Goikoetxea eta Enbilek, Alberdi I.arekin eta Barrondorekin neurtuko dituzte indarrak

Finalaren atarian, azken geltokia

Egiguren-Elizegi, iazko txapelkunak kaleratu zituztenak, eta Arriaga-Barrondo lehiatuko dira ondoren

Igor Susaeta | **DONOSTIA**

Munduko XII. Zesta-punta Txapelketa azken txanpan sartu da. Gaur gauean bi finalerdia jokatu dira, Carmelo Balda pilotalekuan. Protagonistak zortzi izango dira. Lehen norgehiagokan, Goikoetxea eta Enbil zumaiaarrak Alberdi I.arekin eta Osarekin lehiatuko dira. Bigarrenean, aldiz, Arriaga eta Barrondok Egiguren II.arekin eta Elizegirekin neurtuko dituzte indarrak.

Ricardo Alberdi eta Iban Osa bizkaitarrak hiru multzoetako onenetan bigarren gisa ailegatu dira final atariraino. Alberdi I.arentzat, ordea, txapelketa gazi-gozoa izan da berea: «Lehen partidaren ez nintzen aritu batere gustura; igandean, alabaina, presioa handia geneukan gure gain, eta lehia aurrera ateratzea erdietsi genuen». Hargatik, «oso motibatuta» aterako da gaur kantxara etxebarritarra. Goikoetxea eta Enbil zumaiaarrak faborito dira askorentzat. Haatik, Ricardo Alberdi itxaropentsu azaldu zaigu: «Bikote indartsua dutela jakina da; dena den, gu ere oso ondo konpontzen gara elkarrekin». Finalerako txartela lortzeko gakoaz galdetuta, «lasaitasuna» aipatu du 37 urteko aurrelariak. «Ez da izango arriskatzeko partida. Piloteoan nagusitu eta tantoa amaitzeko pazientzia eta zortea duenak finalerako txartelaren erdia baino gehiago patrikaratuko du».

Mikel Elizegi *Elizegi II.a* donostiarraren jokoak ere onera egin du txapelketak aurrera egin ahala: «Txapelketari beldur apur batekin ekin nion; aitzitik, Alberdi I.aren eta Arriagaren aurkako partidaren konfiantza handia izan nuen neure buruan». Era berean, «indarra» handia eman die igandean aurreko urteko txapelketei hil edo biziko norgehiagokan irabazi izanak. Orain, «partidarekin eta Carmelo Baldan ziurrenik izango den giroarekin» gozatzen saiatuko da Egiguren. Harmailetan giroa ez dela falta-ko espero da.

MUNDUKO TXAP.

CARMELO BALDA. 22:30 ETB1.

Goikoetxea-Enbil / Alberdi I.a-Osa (*Aurreneko finalerdia, 35 tantoetara*).

Jon Arriaga-Barrondo / Egiguren II.a-Elizegi (*Bigarren finalerdia, 35 tantoetara*).



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Eustakio Adurriaga 1991tik dabil Zumaiaiko Odieta pilotalekuan gazteei zestari jokatzen erakusten.

Xisteraren habia berria

ZUMAIKO ESKOLAREN FRUITUAK. Eustakio Adurriagaren eskuetatik pasatu dira, besteak beste, Goikoetxea, Enbil eta Alberdi II.a puntista gazteak

Igor Susaeta | **ZUMAIKO**

Historikoki, ia betidanik, Bizkaiko ipar-ekialdean kokaturiko Lea eta Artibaiko bailaretan edo inguruan (Durangon, Gernikan...) jaiotako puntistak izan dira nagusi zesta-puntan: Bolibarko Txikito, Katxin Uriarte aulestiarra, Beaskoetxea gemikarra, Felix berriatuarra eta abar. Lehiakide berriak agertu zaizkie, baina, horiei Urola ibaia itsasoratzen den herrian: Zumaian. Goikoetxea eta Enbilek, hain zuzen gaur Carmelo Baldan lehian arituko direnek, Zumaiaiko Odieta pilotalekuan eman zituzten otarrearekin euren aurreneko pilotakadak. Bertan hasitakoa da Luis Mari Alberdi ere, *Alberdi II.a*, aurreko urteko Munduko Txapelketan Jon Arriagarekin batera txapela jantzi zuena. Gainera, zumaia-ko bestelako puntista batzuk ere goi mailan dabilta: Alberdi III.a, Zinkunegi, Goikoetxe-

aren bi anaia zaharrenak, Mugerza eta abar. EGUNKARIA fenomeno horren erantzule nagusietako bat izandakoarekin egon da, Eustakio Adurriaga Zumaiaiko pilota eskolako prestatzailearekin.

Eguneroko lanaren garrantzia

Leaburun jaiotako gizon honek (1954) oso ondo ezagutzen ditu zesta munduaren ingurumari guztiak; bera 20 urtez aritu zen jokatzen, Bartzelona, Madril eta AEBetan. Euskal Herrira 36 urterekin bueltatu zen. Bera legez puntista izandako Garmendia donostiarraren deiari «ezin muzin egin», eta Zumaiaiko gazteak entrenatzen hasi zen, 1991. urtean. «Zumaiaira ailegatu nintzenean, 55 mutiko ingururen ardura hartu nuen. Garai hartan, Goikoetxeak 11 urte zituen; Enbil eta Alberdi II.a, ordea, helduxeagoak ziren». Euren kirolean goi mailan aritzen den ia orori bezala, Munduko Txapelketako finalerdietan dauden bi zumaia-

BANAN-BANAN

IÑAKI GOIKOETXEA. Dena du: indarra, eskuin kolpea, errebesa, errebotea. Gainera, azkarra da, bai buruari dagokionez, bai zangoei dagokienez.

GOTZON ENBIL. Luis Mari Alberdiren moduan, kantxan kokatzeko abilezia berezia du. Era berean, bikotekide aparta da; asko hitz egin eta laguntzen dio aurrelariari.

LUIS MARI ALBERDI. Goikoetxeak baino indar gutxiago du; teknikoki, aldiz, hobe da. Kantxan oso ongi kokatzen da.

rrei gazte-gaztetatik nabari zitzaien gorenera iritsiko zirela: «Goikoetxea eta Enbil pilotari politak ziren. Areago, pilotalekuan sartuta igarotzen zuten ia egun guztia; zaletasun eta sakrifizio handia erakusten zuten». Adurriagarentzat, alabaina, «askotan ez da nahikoa izaten gaztetan pilotari polita izatea; zaletasuna oinarritzeko da gora iristeko. Ho-

rri, nola ez, eguneroko lana eta zainketa gehitu behar zaizkio. Nik nire esku izan ditudan puntista gehienek errespetatu dute lege hori».

Arestian aipatu legez, puntisten sustraia Bizkaian aurkitu behar dira: «Han zaletasun handia dute. Frontoi politak dituzte: Durangoko Ezkurdi, Markinako Unibertsitatea, Gernikako Jai-Alai...». Dena dela, egun lehiakide bat irten zaie Zumaiaiko eskolarekin: «Hemen gertatzen ari dena zoriaren gauza da, nire irudiko». Gipuzkoan, Andoaindik edo Tolosatik ere atera izan dira puntistak. Eustakio Adurriagarentzat, «Zumaian, zaletasuna handia da, eta egin-dako lanaren fruituak izen eta abizenaz jantzi dira: Luis Mari Alberdi, Iñaki Goikoetxea, Gotzon Enbil eta kanpoan ari direnak dira adibideak».

Gaur egun, Iñaki Goikoetxea da laudorio gehien jasotzen ari dena. «Iñakik dohain bikainak dauzka. Esan beharra dago 16 urterekin Italiara joan zela jokatzeraz». Eustakioren ustez, Goikoetxeak «jauzi nabarmena» eman zuen Italiatik bueltan. Hala ere, Zumaiaiko pilota eskolako entrenatzaileak Odietatik ateratako puntista guztien artean banatu nahi ditu merituak. Gaur egun ere eskolak ondo jarraitzen duelako erakusle garbia bertara biltzen diren 8 eta 18 urteko tarteko 35 gaztetxoak dira.

Ezin esan zeintzuek jantziko dituzten txapelak

Haatik, ezin ahaztu gaurtik iganderraino Munduko Txapelketak azken txanpa jokatuko dela. Hargatik, txapela jantzeko hautagai bat emateko eskatu diogu Adurriagari: «Multzoen egituraketari so egin nionean, Iñakik eta Gotzonek osaturiko bikotea urrutiti iritsiko zela uste izan nuen; baita Luis Mari Alberdi finalerdietan izango zela ere». Azken hori, baina, ez da izango finalerdietan. Eustakiorentzat gaitza da txapelkunak zeintzuk izango diren esatea; izan ere, «partida hauek oso parekatuak izaten dira».

Eustakiok dioten bezala, «zaletasuna eta eguneroko lana» uztartzen dituen gazterik badago, puntista gehiago aterako dira ziurrenik Zumaiaiko Odieta frontoian.